

Julene Azpeitia

Lehiaketa 2013

*Ipuinak
Olerkiak
Bertsoak*

Julene Azpeitia lehiaketa



2013. urtea

Argitaratzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzaileak: _____



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jasotzen du*



KULTURA SAILA

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2013. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1592-2013

2013ko azaroa

HITZAURREA..... 7

Andoni Iruarizaga Amantegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

IPUINAK

PUNTU BELTZAK 11
Maddi Azkarate Umerez

ANDER MAGOA 19
Jon Barbero Ayarzagüena

GOGORATZEKO DANTZA..... 27
Alba Oleaga Muñoz

MAGIA BELTZA 39
Garazi Mugarza Markina

NAËL ETA IDAZLEA..... 53
Eñaut Uruburu Martinez

OLERKIAK

PAILAZO MUTUA 65
Jon Barruetañña Bilbao

GOGORRA DA..... 69
Aroa Merino Turrión

EGARBERA..... 73
Aitor Bizkarra Ruiz

ERDI (beltz) AROA 77
Aitor Albistur Pulido

BERTSOAK

KIROLAK 83
Jon Koka Jauristi

ZAHAR 87
Martin Arrasate Iriarte

KILKERREN KUTXA GOTORRA..... 91
Aitor Bizkarra Ruiz

EGIARI ZOR 97
Aitor Albistur Pulido

hitzaurrea

Ze momentu berezia idazten eta irakurtzen ikasteari ekitea! Baina nola hurbildu hitzen mundura, nola bihurtu erakargarriak eta dibertigarriak?

Lasai baina tinko, maitasunez eta ziurtasunez, Julene Azpeitia lehiaketa urtero guregana hurbiltzen den bezala.

Sentitzen eta pentsatzen dena hitzen bidez adieraztea ze garrantzitsua den, baina askotan ez dira ematen egoera egokiak hitz hauek askatasunaz sor daitezen, hitz hauek erakargarri bihurtzeko.

Horixe da hain zuzen lortu nahi genukeena aurtengo lehiaketako liburu honekin: bizipenei eta emozioei izena ematea, sentitzen denari buruz hitz egitea, euskal literatura erakargarri bihurtzea eta gure hizkuntza lantzea, hitzak landuz sentimenduak eta emozioak ere lantzen direlako.

Aukera paregabea Julene Azpeitia lehiaketan parte hartu duten guztien laguntzarekin euskeraren bidea zabaltzeko, hizkuntza sentimenduekin lotuta dagoelako, hitza beldur eta lotsa barik erabiltzen erakustea ezinbestekoa delako. Hitza eta hizkuntza, beharra eta eskubidea, biak altxorra bezala zaindu, maitatu eta errespetatu beharrekoak.

Besterik gabe eskerrik asko lehiaketan parte hartu duzuen guztioi, eta hitzaurre honen ostean datozen orrialde guztiak zuen irudimena eta emozioak askatzeko balio dezatela.

Andoni Iruarizaga Amantegi
Euskara, Kultura eta Hezkuntza batzordeko presidentea

juleneazpeitia

lehia keta

2 0 1 3


Ipuinak



Maddi Azkarate Umerez

Irabazlea 11-12 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Puntu beltzak

Zuek galdetuko duzue: zer arraio dira puntu beltzak? Batzuek diote krisia dela puntu beltza, beste batzuek berriz puntu beltzak munduko toki arriskutsuenak direla. Nire gelako neskek diotenez, azterketan zero ateratzea da puntu beltzik handiena. Nire gelako mutilena ez duzue sinetsiko, baina jolasaldi batean baloirik gabe gelditzea da puntu beltzik handiena! Amak dio bere enpresak porrot egitea dela puntu beltza. Aitak ere horixe uste du. Ahizparentzat makillaje gabe gelditzea da, Joxe Migel apaizarentzat hiltzea, eta Jainkoari ez obeditzea... Hainbeste puntu beltz entzunda, badirudi puntu beltzak gauza txarrak direla. Eta mundua oso gaizki dagoela.

Ah! Ahaztu egin zait. Oraindik ez dut neure aurkeztu. Nire izena Manex da. Mutil izena da, baina neskatoa naiz eta 8 urte besterik ez ditut. Harrituta geldituko zineten neska izan eta mutil izena daukadala jakitean, ezta? Manex deitzen naiz jaio nintzenean medikuek gurasoei mutila nintzela esan zitelako. Horregatik daukat izen hori. Amak beti dio aldatuko didala, baina.... Esaten du oso gaizki pasatzen ari dela, enpresa beherantz doalako. Nik barkatzen diot. Lagunek behintzat Malen deitzen didate, Manexen antzerakoa delako. Eta hori da niretzat puntu beltza, “nire izena Manex da” esatea.

Etxeko lanak azken momenturako uzten dituen horietako bat naiz: profesionala arazoetan sartzen! Amak beti diost arazoetan ez sartzeko. Nik hala ere sartu egin behar! Nire notarik onena 7 izan da, eta txarrena 3,5. Tira, ez dira nota onak baina ni saiatzen naiz.

Ile marroia dut, ia beti motots eder bat jartzen dut, edo kapela; begi horixkak ditut, aurpegi irribarretsua eta ederra daukat (hori dio amonak), eta amaren antz handia daukadala esaten didate (hori ere nire amonak dio).

Gaur, 2015eko urriaren 2a da eta gelako guztiok Gabonei buruz hitz egiten gabiltza. Gurasoek diote dagoeneko 2016an gaudela, eta oraindik krisian gaudela. Geroz eta manifestazio gehiago daude bizi naizen herrian, Bilbon. Dagoeneko Bilbo ere puntu beltza bihurtu da, eta pixkanaka Bizkaia eta Eukal Herri osoa ere puntu beltz handi lodikote bat bihurtuko dira. Eta inork ezingo gaitu salbatu.

Nik ez dut Gabonei buruz hitz egiten, ezta krisiari buruz ere. Nik lagun minekin jolasten dut, Alexekin eta Martarekin. Alexek 8 urte ditu, mutila da, eta Ameriketatik etorri zen. Marta berriz, Madrilekoa da, neska bizia, eta 8 urte ditu. Haiekin jolasten ematen dut eguna.

Atzo arratsaldean ere haiekin ibili nintzen jolasten. Gero etxera joan eta izozki eder bat jan nuen. Ondoren, telebista piztu nuen, eta telebistako saioan munduko hiriak agertzen ziren, eta bat-batean konturatu nintzen agertu ez nahi zuteneui puntu beltz handi bat jarri ziotela buruan. Eta nire amari, Cristiri, galdetu nion:

- Ama, zergatik jartzen diote puntu handi beltz bat buruan? Telebistan ez agertzea ez da txarra, niri gustatuko litzaidake!

- Maitea, puntu beltz guztiak ez dira txarrak!

- Egia al da hori?

Une horretan nire puntu beltzen zerrenda eta azpimarratzaile laranja atera nituen, eta esan nion:

- Ama, hemen daukazu puntu beltzen zerrenda. Azpimarratu puntu beltz onak!

- Laztana, zure zerrendako denak ezkorrak dira.

- Jakina, beltzak dira eta! Bestela beste kolore batekoak izango ziren. Ama barrezka hasi zen.



- Dena dela, nondik atera duzu zerrenda hau?

- Nire lagunak eta nik egin dugu. Orain banoa. Agur!

Eta logelara joan nintzen pijama jantera, hortzak garbitzera eta, azkenik, ohera. Kaxoitik nire Mr. Kuki atera nuen (Mr. Kuki peluxea da), eta minutu batean lokartu egin nintzen.

Puntu beltzak zer ziren argiago neukan, eta geroz eta lasaiago egiten nuen lo. Baina hainbeste puntu beltz gora eta puntu beltz beheara, beldurtzen hasia nintzen.

Hurrengo astean gure ikastolan jai berezi batzuk genituen, eta horregatik aste bat jai izango genuen. Gurasoek *GRAND CANYON* izeneko toki batera joatea proposatu ziguten, eta nik ezetz esan nien, zeren, puntu beltzen zerrendako 24.ean *GRAND CANYON* izena jarrita dago, eta hor jarrita badago, ni ez naiz joango! Gurasoek galdetu zidaten ea zergatik ez nuen joan nahi. Nik neure puntu beltzen zerrenda erakutsi nien, eta barre egin zidaten. Ezin nuen sinetsi! Ni negarrez eta gurasoak barrez. Une hartan pentsatu nuen:

- Gurasoak izan eta ez didate sinesten. A ze guraso pare!

Azkenean konbentzitu egin ninduten. Eta asteburuan bidaiari ekin genion. Bidean ama oso pozik zihoan, bide osoan hitz eta pitz, isildu gabe:

- Lagun guztiak inbidiatan dauzkat... Ez pentsa, denek ez dute aukera hau... Munduko amarik zoriontsuena naiz!

Horrela aritu zen. Baina egia esan eskertzekoa zen haren zorion aurpegia ikustea.

Ameriketara heldu ginen, eta ni geroz eta urduriago nengoen zerrendaren 24. puntu beltzarengatik. Bat-batean aireportuan andre gazte bat hurbildu zitzaigun, eta esan zigun:

-Hello, I will be your guide in these days.

Nik ez nion ezer ulertu. Amak esan zidan Ameriketara ingelesez hitz egiten dela. Eta gidariarekin hitz egiten jarraitu zuen. Gidariak esan zidan:

-Want some candy or anything else?

Nik ez nion tutik ulertu, eta amak xuxurlatu zidan:

- Karamelurik edo beste zerbait nahi duzun esan dizu.

- Yes -esan nion gidariari.

Mia Mac Rin izena zuela esan zuen, eta bost izarreko hotel batera joaten lagundu zigun.

Egia esan, ondo pasatzen hasia nintzen. Eta une hartan bertan, amak dei bat jaso zuen. Ama zurbil geratu zen. Telefonoa eskegi eta esan zigun:

- Etxera itzuli beharra daukagu.

Ahizpa asko haserretu zen. Oraindik ez ginen berak amestutako New Yorkeko denda dotoreetara joan! Niri berdín zitzaidan, baina ez nuen ulertzen zergatik itzuli behar ginen etxera. Amak gidaria jakinaren gainean jarri zuen, eta hark esan zuen:

- Well, it's a shame, but if you are in this situation you may go. I'll tell the boss you've had to come back. Bye.

Nik berriro ere ez nion tutik ulertu. Eta, halaxe, etxera itzuli ginen. Behintzat lagunekin elkartu eta nire jostailuekin jolastu ahal izango nuen.

Hurrengo goizean etxera heldu ginen. Baina han ez nuen nire jostailuak ikusterik izan.

Gure etxea benetako puntu beltz handi bat bihurtu zen! Beltz-beltza zen... erabat erreta zegoen eta! Hura bai zela benetako puntu beltza! Ahoa zabal-zabal eginda gelditu ginen.

Ahizpari besarkada bat eman nion. Ezin nuen sinetsi. Ama saiatu zen gu lasaitzen.

Aurrerantzean etxe berri bat izango genuen eta etxeak denetarik edukiko zuen: lorategia, igerilekua... Baina nik lehengo etxea nahi nuen!



Hura izan zen nire bizitzako puntu beltzik handiena, etxe gabe gelditu eta beste batera joatea. Zer egingo diogu...!

Eta zein da zuena? Nolakoa da, txikia ala handia?

Dena dela noizbait horrelako zerbait gertatzen bazaizue, jakin ezazue ondoren gauza oso on bat gertatuko dela. Beraz, puntu beltz bat agertzen bazaizue, zuek egin irribarre txiki bat barru-barrutik...

Ipuinale



Jon Barbero Ayarzagüena

Irabazlea 13-14 urtekoen sailan

Kurutziaga Ikastola

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Ander Magoa

Bazen behin mago bat Ander deitzen zena, kobazulo batean bizi zen. Munduko gauzarik beldurgarrienetakoa mago baten kobazuloa izan da beti. Eta hauen artean beldurgarriena Ander magoarena.

Baso handi baten erdian zegoen. Eguzkiari ere ez zioten pasatzen uzten hango zuhaitzek. Basoaren erdialdean harkaitz beltz bat zegoen, landarez estalia. Harkaitzean zulo bat, eta handik sartuz bide estu bat, armiarma sare zosita.

Bidearen beste muturrean gela zabal bat ikusten zen. Gela hartan egiten zituen Ander magoak bere magiak.

Liburu zaharrez bete zegoen gela eta bertan ontzi arraro batzuk koloretako likidoz beteta. Batzuek lurrin gozoa botatzen zuten, beste batzuek, oster, kiratsa.

Bazterretan neurri askotako kaiolak ageri ziren. Barruan muskerrak, apoak, sugeak, katuak eta arratoiak zeuden.

Dena erdi ilunpean zegoen. Eta kandela baten argi hila besterik ez zen ikusten.

Gela erdian zegoen magoa bere kristalezko bolari begira eta nahasketa misteriotsuak egiten ari zen.

Egun batez mutil bat galdu zen baso hartan. Etxerako bidea bilatu ezinik zebilela, magoaren kobazulora iritsi zen. Bide estu haren bestaldean argia ikusi zuenean, jakin minez barrura sartu zen. Berehala entzun zuen ahots bat:

- Sartu, Mikel!

Mikel beldurrez dardarka hasi zen eta honela galdetu zion:

- Nor zara eta nola dakizu nire izena?

- Ander magoa naiz. Sartu, laguntzaile bat behar dut eta!

Mikelek gelaraino jarraitu zion. Han zegoen magoa mantal berde luze batez jantzita. Buruan txano puntazorrotz bat zeukan, dizdiz egiten zuten izartxo apainduta.

Magoa zaharra zen, sudurra handia eta begi txikiak zeuzkan. Bizkar gainean tontor bat zeukan.

Anderrek Mikel ikusi zuenean honela esan zion:

- Zer nahiago duzu: txori bihurtu ala nire laguntzaile izan?

Mikelek laguntzaile izatea nahiago zuela erantzun zion, ez zuen eta, egun osoan, pio, pio, pio egiten egon nahi.

Egun hartatik aurrera Mikelek nahasketak prestatzen laguntzen zion eta nahiko gustura zebilen. Baina, hala ere, ez zekien magoak egiten zituen gauza guztiak egiten. Anderrek nahasketak prestatzen zituen eta Mikel laguntzaile-lanetan aritzen zen. Gauza guztiak arretaz begiraten zituen gure mago laguntzaileak. Behin erbi bat tximeleta bihurtzen ikusi zuen Ander magoa. Beste behin, oilar bati asto belarriak jartzen. Edozer gauza egin zezakeen mago hark. Batzuetan mahaia fandangoa dantzatzen ipintzen zuen. Beste batzuetan, Iau txerri esku pilotan jokatzen eta hogeita bi inurri futboleant, Anderren sudurzuloaren mokoarekin.

Honelako gauza harrigarri bakoitza egiteko hitz berezi bat esaten zuen: hitz magikoa. Baina magoak beti isilean esaten zuen eta Mikelek ezin izaten zuen entzun.

Baina behin Mikelek lokartuarena egin zuen. Eta orduan magoak erratz bat hartu eta honela esan zuen:

- Adi, adi! Erratza, garbi!

Eta erratza bera bakarrik hasi zen gela garbitzen. Gero honela esan zion magoak:

- Adi, adi! Erratza, ura ekarri!

Erratzak ontzi bat hartu eta ur bila joan zen iturrira.



Gero beste hitz magiko batzuk esan eta erratza bere tokian geldi geratu zen. Gau hartan Mikelek ez zuen Iorik egin, entzundako hitzak errepikatu eta errepikatu aritu zen: ahaztuko ote zitzaizkion beldur zen.

Hurrengo egunean magoak tartetxo hartu eta honela esan zion Mikeli:

- Entzun, Mikel, ni basora noa belar magikoen bila. Kanpoan naizen bitartean ez ontzi bat bera ere ukitu, ez dira jolasteko eta. Egin behar duzuna zera da: gela hau garbitu, baina kontuz. Bihar mago guztion buruzagia dator eta gela txukun-txukun eduki nahi dut, behar bezalako harrera egiteko.

Magoa Joan zenean, Mikel lanean hasi zen. Baina garbitzen ziharduela, zera bururatu zitzaion: “Hau magoaren erratzaz egin nezake.” Eta hitz magikoak errepikatzeko gogoia etorri zitzaion.

Hasieran ez zen ausartzen, baina gero erratza zegoen tokira joan eta honela esan zion isilik:

- Adi, adi! Erratza, garbi!

Baina erratza ez zen mugitu ere egin. Gero ozenkiago agindu zion, baina, bai zera!

- Zer gertatzen da hemen? -esan zuen haserre.

Laster konturatu zen zer gertatzen zen: Armairu gainean zegoen Anderren txano puntazorrotza. Aulki gainera igo, txanoa hartu eta buruan jarri zuen. Gero honela esan zion ziurtasun handiz:

- Adi, adi! Erratza, garbi!

Orduan erratza garbitzen hasi zen. Berehala, kobazulo guztia garbi baino garbiago zegoen. Lana bukatu arren, oraindik gelditu gabe garbitzen jarraitzen zuen erratzak. Orduan, Mikelek:

- Adi, adi! Erratza, ura ekarri!

Erratzak ontzia hartu eta ur bila joan zen. Haitzulora iritsi zenean lurrera bota zuen ura. Orduan zapi bat hartu eta hobeto garbitzen hasi zen Mikel. Baina laster, berriz ere, beste ontzikada bat ekarri zuen erratzak.

- Bueno, bueno! -esan zion Mikelek-. Nahikoa da uretik! Ez ekarri gehiago!

Baina erratzak ez zion kasurik egin eta gelditu gabe ura ekartzen jarraitu zuen.

Zekizkien hitz magiko guztiak esan zituen mutil gizajoak, baina alferrik.

Hainbeste urez asperturik, aizkorakada batez bi zati egin zuen erratza. Are okerrago! Orain bi erratzak hasi ziren ur garraioan. Mikel amorruez beterik aizkorakadak ematen hasi zen. Gero eta erratz gehiago zebiltzan ura ekartzen.

Laster asko haitzuloa urez betetzen hasi zen. Mikel, larriturik, laguntza eske hasi zen. Mahai gainera igo zen lehenengo. Gero armairu gainera. Haraino ere laster heldu zen hura. Bapatean, etxera bueltatu zen magoa. Harriturik geratu zen kobazulotik ura ateratzen zela ikustean.

- Zer gertatu ote da? -esan zuen, eta bide estuan zehar aurrera jarraitu zuen.

Gelara iritsi zenean ura leporaino iristen zitzaion.



Sartu zenean, berehala konturatu zen gertatutakoaz. Mikeli txanoa kendu eta bere buru gainean jarri zuen.

- Elektromagnetum -esan zuen.

Hori esatearekin batera, erratzak desagertu eta urak poliki-poliki jaisten hasi ziren.

Mikel armairu gainean zegoen. Orduan, magoak:

- Jaitsi hortik!

Mikelek esana bete zuen.

- Jarri bizkor atzeraka! -agindu zion magoak.

Mikel atzeraka jarri zen eta Anderrek magiarekin Mikel etxera bidali zuen.

Ipuinak



Alba Oleaga Muñoz

Irabazlea 15-16 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Gogoratzeko dantza

- Haizea, hanka altuago jarri, gora, gora, animo, apur bat gehiago.
- Mikel, gaur berandu zatoz, hurrengoan atea itxiko dizut, abisatuta zaude, hasi beroketak egiten.
- Naroa zuzen jarri zaitez.
- Luzia gehiago egin ahal duzu laztana, lurretik altxatu!
- Itxi bakean mesedez! Nazkatuta nago! Beti gauza bera.

Luzia da, 16 urte ditu neskato azkarra eta atsegina da, ikasketetan ondo dabil eta lagun kontuetan ere bai: neska fina da. Baleta dantzatzen duenean beltxarga dirudi, oso ona baita, baina beltxarga ilun bat besterik ez da, gor baitago, musika ezin senti dezakeen animalia da.

Baina neskatoak ez du errurik, ez baitu baleta laket, hala ere amak derrigortu egiten du klasetara etortzen, lortu ezin izan zuen ametsa bere alabatxoak lortzea nahi du, aise izango balitz moduan, baina nik uste dut, amak ahaztuta duela sentimendu barik dantzatzea burutik kendu ezin duzun pertsona hori ahaztea bezain zentzugabea dela. Ama iraganean asetzea lortu ezin izan zuen ametsaren atzetik dabil, itsu.

Ez dut Luziarekin berba egiteko astirik, klasetik irten bezain pronto joan da. Imajinatu dezaket gainean duen presioa, zeren eta ez dago gauza zailagorik zerbait gustuko ez izatea eta egunero hobetu behar izatea, gogo izpi txikirik gabe. Neska ona da.

Leihotik begira geratu naiz, klasea amaitzerakoan 7:45 dira, gaurkoz amaitu dut. Jadanik kaleak ilun eta gris daude, negua baita.

Plof, plof, plof, euriaren zaratak lasaitu egiten nau.

Tanta anitz daude leihotik bueltaka, bitxia da baina, tantek ez al dute gizakion antzera jokatzeko? Bada, baiezkoan nago, tanta bakoitza leku desberdinetatik dator, gero leihoan erori eta jarraian bakoitzak bere bidea egiten du, momentu batzuetan bidea okertu egin daiteke, hala ere, bakoitzaren bidea izaten jarraitzen du, zailtasun guztiak gaindituz. Askotan tanta batzuk euren bidea egiten duten bitartean batu egiten dira, beste batzuekin, bide bat batera egiteko, ez du zertan betirako izan, asko banandu egiten dira, hainbat arrazoiengatik.

Gu biok batera jarraitzen dugulakoan nago, maitea, gure tantak leihotik bueltaka jarraitzea nahi dut, behar dut, desira dut.

Haize bortitz batek beldurtu nau, nire pentsamendu kaxa zabaldu dudanean. Hotz egiten du kalean, bihotza ere hoztuta dut, zure arnasa nire belarritik bueltaka sentitzen ez dudan momentu hartatik.

- Marina anderea! Aterkia klasean ahaztu zaizu! Hartu, behar izango duzu. - oihuka esan dit Sandrok, gure garbitzaileak.

- Mila esker, bihar arte.- agurtu dut.

Gaur berandu heldu naiz etxera, bidea luzatu dudalako. Ostera ere gurea egin genuen lekura itzuli naiz, usain goxoa nire gorputzean sartu bezain laster, nire alboan izan zaitudala igarri dut segundo bakar batengatik bada ere.

- Barkatu. -Nire malkoek ezin izan dute gehiago jasan, mahaitik altxatu eta han itxi ditut gure Luca eta Auria afaltzen.

Ez dut logelako argia piztu nahi, argi faltsu bat izango litzateke, galdu zintudanetik ez dut argirik ikusi.

- Ama, ez egin negarrik arren eskatzen dizut. Aita jadanik ez dago gurekin baina... -negarrari heldu ezinik elkar besarkatu dugu lurrean botata.

- Luca maitea, erdu hona!

Argi izpi goxo bat ikusi dut besarkatzerakoan, bai, Auriak arrazoia du, jada ez zaude gurekin besarkada bero bat emateko, baina bai aurrera jarraitu behar dudala esateko.

- Amets goxoak izan, laztanak.

Esne beroa eztiarekin hartu dute, lokartu aurretik.

Marina, je seulement te demande une chose, écoute-moi, sil vous plait, c'est important ; regarde-moi, donne-moi la main, quand je ne serais pas plus ici, je veux que tu sois heureux: et comme je t'ai fait heureux, je sois sur que quelqu'un autre te fera aussi; je demande seulement cela, être heureux.

(Marina, gauza bat eskatzen dizut, entzudazu, mesedez, garrantzitsua da eta. Marina, begira iezadazu, emadazu eskua, zure ondoan izango ez naizenean zoriontsu izan zaitezela nahi dut: eta nik zoriontsu egin zaitudan bezala, ziur naiz besteren batek ere egingo zaituela; horixe besterik ez dut eskatzen: zoriontsua izan zaitezela.)

Gabon, baita zuri ere.

Arbolak hasi dira dagoeneko hostoak galtzen, osterera ere negua da.

7:45 dira, klase ona izan da gaurkoa. Luzia ez da agertu; Mikel, betiko moduan, berandu heldu da, eta kalean hotz egiten du: gauzak ez dira aldatu. Luca matematika gainditu ezinean dabil, baina irakasleak esan dit lasai egoteko. Auria lan eta lan dabil batxilergoa amaitzeko irrikan unibertsitatera joateko, gure alabatxo handi egiten ari da, mutil lagunarekin jarraitzen du, poz-pez bizi da gure printzesatxo.

Atea jo dute, betiko herdoil-zarata egin du, Luzia da.

- Aurrera, sartu.

Han zegoen tente bere praka estuekin eta jertse urdin batekin. Gaur ilea lisatu du, oso polita dago baina aurpegian tristura nabaritu diot.

- Barkatu, badakit askotan ez naizela behar den moduan portatu baina... -ez diot amaitzen utzi.

- Badakit, ez duzu baleta gustuko. -Esan diot, aurpegian dituen malkoak lehortuz. Musika-katea piztu dut eta Tchaikovskyren "beltxargen lakua" jarri dut.

- Entzun abestia. Ez al duzu zure barneko beltzarga hori ateratzeko beharrik?

Ezetz egin du buruarekin.

- Utzi egingo dut, Marina, badakit ulertzen nauzula.

- Erabaki hau zure amari kontatzea izango da zailena, baina, hala ere ...

- Ama ados dago, begietatik zurezko betaurrekoak kendu ditu. -esan dit, irribarrez.

- Pozten naiz, ondo ibili laztana.

Eta klasetik irten baino lehen esan dit:

- Marina, hau atean egon da, zuretzat dela pentsatu dut.

Harritu egin naiz, orri zuri bat da, Luzia agurtu bezain pronto paperean zegoena irakurri dut .

Ez dago zertan balletari buruz jakin disfrutatzeko, egin behar duzun gauza bakarra begiratzea, mirestea, maitatzea, gozatzea da.- Edwin Denby

Nik zu ikusita disfrutatzen dut

Irribarre egin dut, baina galduta sentitzen naiz, nahastuta, sentimendu berezi bat sartu da bat-batean nire bihotzean.

Orriaren atzeko aldean begiratu dut, baina ez du izenik jartzen.

Barkatu, barkamena eskatzen dizut, gaur gertatu denagatik. Gaurko irribarrearen sortzailea zu izan ez zarelako.

Euria gaur ere, trumoiak entzun ditut.

- Egunon, gora bihotzak! Luca gora! Auria, loti ederra, zeu ere gora!

Begiak zabaldu ditut eta han dago nire ama irribarre handi bat aurpegian, aspalditik ikusi dudan gauzarik politena izan da. Berehala nire aurpegian ere irribarre handi bat sumatu dut, hau bai poztasuna, ama horrela ikustea.

- Pozik ama? -esan diot ohetik altxatzerakoan.

- Zer dela eta galdera hori? -erantzun dit haserre.

- Norbait berezia ezagutu al duzu?

- Ez esan lelokeriarik, nik zure aita maite dut, eta inork ez du lortuko beragatik sentitzen dudana sentiaraztea.

- Ama, seguru nago zure irribarrea sentitzearekin aski zaiola aitari, zuk zoriontsua izatea merezi duzu. Aitagatik sentitu duzuna ez duzu zertan ahaztu, zoritxarrez, ez dugu gure artean, baina bai betirako gure bihotzetan.

Amak desadostasun absolutua aldarrikatu ez bazuen ere, isiltasunak dena adierazi zuen.

Oroitzapenetan bizi naiz, oroitzapenetan noa pausoz pauso. Egunerokoa kontuan hartu gabe, zu baitzara nik maite dudana.

- Okerra, kalera mesedez. -esan diot.

- 1,35 € da.

- Tori. -zakar erantzun diot, egun txarra baitut gaurkoa.

Gaztea da gidari berria, 23 urte inguru izango ditu. Bosgarren jesarlekuan eseri naiz betiko lez. Eskumatara Koba dago, autobus hau hartzen du astelehen, astearte eta ostegunen guztietan, ikastaro bat egiten baitabil. Neskatoak aurikularrak jartzen ditu beti eta bere munduan murgiltzen da. Ezkerretara Mohamed dut, egunero hartzen du autobusa ordu honetan, oso mutil dotorea da, trajearekin ibiltzen da egun osoan, laket dut erabiltzen duen koloniaren usain goxoa. Atzeko aldean, azken lerroan, Angela dago hirugarren ametsen, ostera be lokartu egin da.

Geldialdi eskatua, adierazten du kolore biziz karteltxo batek.

- Aizu, zurea da orri hau? Zure azpian egon da. -esan dit Mohamedek, autobusetik jaisteko altxatu naizenean.

- Nire azpian? Orri hori? -ustekabeen harrapatu nau.

- Arin, andrea! Ez dut egun osoa zuretzako! -txilioka esan dit gidari desatsegin hark.



- Hartu, eta begiratu zurea den. -irribarre batekin agurtu nau Mohamedek.

- Egunon, Sandro.

- Egunon, bai. Euria egiten jarraitzen du?

- Bai, zoritxarrez, eta aterkia etxean utzi dut, blai nator.

Barre egin du.

Romeo eta Julietaren abestia jarri dut. Berokia eta oinetakoak kendu ditut. Papera zabaldu dut.

“Nire bihotzaren taupadak arinago joaten dira zu ikusten zaitudan bakoitzean”

Begiak itxi ditut, lasaitasun osoa sentitu dezaket nire gorputzean, hau irakurri ondoren, aspalditik sentitu izan ez dudana.

Irribarre madarikatua.

- Ama, ama, lagundu etxeko lanekin mesedez. -esan dit Lucak bere on aurpegitxoarekin,

- Zer da maitea? -Idazlan bat egin behar dut.

- Zein da gaia?

- Zer da amodioa? -esan dit.

Erantzun ezinean nago.

- Amodioa norbait maitatzea, zaintzea, eta errespetatzea dela uste dut nik -erantzun du Auriak, afaria prestatzen duelarik- Ama, zuk zer diozu?

Begiak itxi ditut.

Barkatu, begiak ixterakoan zu ez zaitudalako nire pentsamenduetan izan.

- Egunon Sandro. -agurtu dut.

- Egunon Marina. -agurtu nau, leihoak garbitzen dituen bitartean, leihoan dauden tanta guztiak kenduz.

- Politik dira. -esan dut.

- Barkatu? Zer esan duzu? -erantzun dit harriturik.

- Bai, tantak, politik dira, nik ez nituzke kenduko.

- Tanta hauek egin beharrekoa egin dute, jadanik, orain beste batzuen txanda da, hauek izan zirenaren jarraipena izango dira.

Felix Mendelssohnen *Udako gau bateko ametsa* abestia jarri dut.

Ortozik ibiltzea laket dut.

Horman zintzilikaturik dagoen koadroa okertuta ikusten dut, bi katu zuri dira, tutu larrosarekin. Lucak oparitu zizuna zure urtebetetze egunean. Zuzen jarri dut, eta paper bat erori da lurrera.

Tolestuta dago, bustita ere bai, orban bat du, marroia, Kolonbiako kafe goxoaren usaina du.

“Begiratu leihotik”.

Nire oinek lurraren lastana sentitzen dute leihora hurbiltzen naizenean.

Ez dut ezer berezirik ikusten. Denak berdin jarraitzen du, zortzi eta erdiak dira, hotz egiten du, ahateen parkean eserita igarotzen dituzten betiko amamak hizketan daude, umetxoak haurtzaindegira sartzen dira, Mariasunek bere okindegia zabaldu du

Paperaren atzeko alde ikusterakoan haxe ikusi dut:

”Betikoa, ezta? Ezer ez da aldatu, denak berdin jarraitzen du, baina nik irribarre bat atera nizun, bai, irribarre polit hura.

Behin sentitu zenuena ez duzu zertan ahaztu, baina itxi zurea izaten.

Je t’aime mon amour, benetan diot lastana.

- Ama. -baxu esan dit Auriak.

- Bai Auria.

- Ordua da, bai, heldu da ordua. -aurpegiarekin baiezkoa eginez.

- Zer diozu, lastana? -ikaratuta nabaritu dut.

- Aitak hau eman zidan zuretzako.

- Orain, zelan orain?

- Bai ordua da, ama, irakurri.

Geldirik geratu naiz, ez naiz kapaza gutuna zabaltzeko, indarrak galtzen noa apurka-apurka.

- Ama, hasiera batean aitak gutun hau ematerakoan eta zer jartzen duen azaltzerakoan, ez nizula emango esan nion, negarrez eta txilioka, baina orain, dena ulertzen dut.

Pour la plus belle:

Marina, hau irakurtzen zabiltzala jakiteak poztasun handia sortzen dit.

Honek esan nahi du norbaitek lortu duela nire Marinari irribarretxo bat ateratzea,, irribarre politena baituzu,

Argi dut maite nauzula Marina, lasai egon, ezin izango nauzu ahaztu zure bihotzean egongo naizelako, zure bizitza osoan, zure ondoan baina munduko irribarre politena galdu ez dadin, zoriontsu bizi zaitetz.



Beldurrik ez izan maitasun berri bat hasteko, merezi baituzu.

Buruan beldurra besterik ez baduzu ametsentzako ez duzu lekurik izango.

Je t'aime

Je t'aime aussi, laztana.

- Ama, aitarekin ados gaude Luca eta biok, hirurok maite dugu aita, bakarra baita. -esan zuen Auriak negarra zeriola.

Etxeko txikia guregana etorri da, besarkada bero honek erakutsi dit argi berri bat piztu dela nire bizitzan.

Klasea zabaldu dut eta lurrean zerbait idatzita ikusi dut:

“Atzera begiratu”

Irribarre egin dut, laket dut ikusi dudana pertsona.

- Marina andrea. -ahots goxo bat entzun dut.

- Marina soilik, mesedez. -urduri esan diot.

- Ongi da. Beldurrak gainditzeko prest?

- Nire ondoan zaitudan bitartean bai, Sandro.

Oroitzapenen kaxan gordeko dut igarotako guztia, kaxa honi giltzarik ez diot jarriko oroitzapen asko sartzen baitira barruan.

Ipuinale



*Garazi Mugarza
Markina*

*Irabazlea 17-18 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua*

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Magia beltza

IZANDAKOAK, DESEGINDAKOAK ETA ETOR ZITEZKEENAK

Gogoan dut haize basatiaren aurkako norabidean paseatu genuen ilunabar hura. Eta badakit zuk ere ez duzula ahaztu. Ileak korapilatu zizkigun, eta ezker eskuan zeneraman mapa ere berak eraman zuen, ortzemugetara indar handiz eta bizkor ihes egiten zuen haize hark. Mapa kendu zizun, galduta sentitzeko beldurrez edo gu helmuga gabe utzi nahian. Ez, ez zenuen mapa bi eskuekin heldu, eskuin eskuarekin anorakaren lepoa eusten ari baitzinen, oparitu berri nizun sandaloz eginiko idunekoa haizeak bere igaroan gure aurka jaurtitzen zuen gatz potoloagandik babestu nahian edo. Eta mapa hori, gerora, Lisboako labirinto haren aurka erabil genezakeen arma bakarra izango zen, eta hura ere, haizeak eraman zuen. Gu bion arteko maitasuna bezala.

Eta txikitan ezetz esaten ziguten, denbora ez dela haizea. Zuri ez dakit, baina niri behintzat denbora gizakiak asmatu duela errepikatzen zidaten. Eta nik ez nion sinetsi nahi izaten ahots monokorde eta grabea zuen emakume ilegorriari. Batuketak gutxienez ondo irakatsi zizkidan. Oraindik, joan zinenetik pasa diren egunak zenbatzen jarraitzen dudalako. Eta badakit, lau mila bostehun eta laurogeita zazpigarren eguna dela gaur. Zu jabetu ere ez zinen egingo horretaz.

Denbora eta haizea elkarrentzat eginak direla uste izan dut beti; biek egiten digute ihes ezereza izango bagina bezala, ez gaituzte begiratzen. Noizbehinka laztandu. Edo azala zimurtu. Ikusezinak izan gaitetzke, zergatik ez. Desegin, aldatu eta ihes. Ez dute besterik egiten. Lagako hondartzan nengoela erreparatu

nuen orban zuriak zituen zerua lehen aldiz. Eta han, harean etzanda nengoela ohartu nintzen haizeak hodeiak desegiten dituela. Eta denborak gu desegiten gaitu, bitartean. Gu eta garai batean lotu gintuena. Haizea eta denbora. Ez dira bat bera baina badute itxura. Esku artean biltzeko borrokatu nahi, eta konturatu orduko, esku hutsik. Ez duzu uste?

Gatzak estaltzen zituen Lisboako kale aldapatsuak ilunabar hartan. Hotz egiten zuen, bai, baina ez zenuen uste baldosa leunak izoztera iritsiko zenik. Eta ez zen iritsi. Eta barre egin zenuen, bazenekielako Lisboa Europako hiririk beroenetakoa dela. Gogoratzen zara? Horregatik erabiltzen zuen haizeak gure aurkako arma gisa. Berak ere bazekien, ni ote nintzen jakinaren gainean ez zegoen bakarra? Ez zuen gu gelditzea lortu, baina helmugarik gabe utzi gintuen. Eta norabidea jakitetik galduta egotera pasa ginen.

- Maite zaitut, Esti. (Akordatzen naiz.)

Hala ere, “Doce xícara de chocolate” hartara sartzeari erabaki genuen, gainean generaman gazia gozatzeko. Beranduago ere izango genuen astia ostatua bilatzeko. Eta ebaki sinple bat hartzekotan joan baginen ere, ez genuen ebakirik hartu, txokolata baina. Sartzeari batera bere usainak besarkatu baikintuen. Eta une batez zentzu guztiek dastatu zuten txokolata. Esne gutxiegi zeukala begitandu zitzaidan, sendoegia zela edatekoa izateko. Eta jan egin nuen. Eta koilararekin jate hori zoragarria iruditu zitzaidan. Zuk ere berdina egin zenuen.

Kostata, baina aurkitu genuen ostatua. Kale aldapatsuak igo, bidegurutzeak zeharkatu. Eta berriz igo. Barrio Alto osatzen zuten etxe zaharkituetako bat zen. Berandu, baina iritsi ginen. Kale aldapatsuak igo, bidegurutzeak zeharkatu. Eta berriz igo. Balkoira atera ginen eta muxu eman zenidan, inoizko gozoena. Muxua bera ere galduta, bera ere gazi. Zuk ziurrenik ahaztuta izango duzu hori, baina ni egunero akordatzen naiz. Bi emakume ginen, bi emakume gazi. Gainerakoek ziotenari belarriak entzungor jarri eta geureari begiratu genionak ginen. Eta ez dakit hasieran zergatik ukatu genuen ginena, bi emakume maitemindu. Muxuaren ostean, bakoitza bere pentsamenduetan murgildu zen, segundo erdiko parentesia,

airea hartzeko abagunea (zoragarria). Eta elkar laztanda genuen gero, esku finen esentziaz giroa mozkortu arte. Xerak, laztanak.

Errieta egiten zenidan erlojua gehiegi begirutzen nuelako. Denborari kasu gehiegirik ez egiteko eskatzen zenidan, orainean sinesteko, ziur dakidan gauza bakarra izango delako beti. Eta nirekin zeundela. Bai, asmatu duzu, berdin jarraitzen dut. Baina erlojua ez dut erabiltzen denboraren mendean egoteko, artean denbora ahaztu ahal izateko baizik. Eta haizeak denbora badela gogorarazi bitartean lasai bizitzeko ohitura hartzen dut. Biok genuen arrazoia. Arrazoi osoaren erdi bana bai behintzat.

Kortesiazko ahots tonua jartzen zenuen “Duas xícaras de chocolate, faz favor” bakoitzean. Eta gosari isil bat izaten genuen goizero Lisboako gure betiko txokoaren konpainian. Txokolatea gosaltzen genuen. Eta musika klasikoa. Ingurura begirutzen genuen. Eta han zegoen, elkar begiratu ordeztu bakoitza bere gosariari begira dagoen bikote lotsatia, inguruko mahaietan berezitasun bila dabilen emakumea. Hirugarren mahaietan, egunkariaren titularrak gosaltzen zituen gizona, zainari begiak betaurrekoen kristal gardenetan galtzen zitzaizkion.

Museoak bisitatu genituen. Eta elizak. Asko gustatu zitzaizun elektrizitatearen museoa. Eta ni ikaratuta egon nintzen eliza hartan. Gidaren ahotsa organoaren soinu ahaltsuaren azpian entzuten zen, azaldu nahian, baina hitzak nota dardarati eta pisutsuen artean nahasten zitzaizkion. Emakume portugesearen ahotik gaztelazko hitzak ateratzen ziren, ni berari begira nengoen, aho zabalik eta begiak bere aurpegian iltzatuta. Baina belarriak organoaren notek zanpatzen zizkidaten. Bihotza ere bai. Eta zuk barre egiten zenuen, baina betidanik izan diet beldurra organoaren melodiei.

Ipuin terapeutikoak idaztea gomendatzen zenuen beti, barrena husten laguntzen omen dutelako. Eta hemen nago, gutun terapeutiko hau idazten, zerbaitetarako balioko duelakoan. Badakidalako zer nahi dudana, eta aspertu naizelako itxaroten. Hainbeste malkok ere ez dutelako balio izan samin, min eta tristura masa hau kanporatzeko. Zuk klasiko errusiarrak irakurtzeko ohitura

zenuen, klasiko errusiarrak, idazle euskaldunen lehen nobelak, Sarrionandia eta Bernardo Atxaga. Eta orain, egunkariaren titularrak behintzat irakurriko dituzula sinetsi nahi dut, ez duzula zeure zaletasunik baztertu, eta ipuin terapeutikoren bat idatzita izango duzula jada.

Egun batetik bestera galdu zintudan, beste bat aurkituta baitzenuen ordurako, berria, desberdina. Eta urteekin itsutu egin zinen. Hondoratu. Zorabiatu. Nahastu. Eta zure etsaia maitatzera iritsi zinen. Heriotza irensteraino maitemindu zinen, eta zainetan daramazu oraindik. Zergatik egin zenidan hori? Zergatik zapuztu zenuen dena? Ni hamazortzi urte nituela konturatu nintzen bizitzak etengabe egiten zidala ihes, eta ez nuela sekula harrapatuko, eta bazilhoala. Noiz konturatuko zara zu? Noiz aprobetxatuko duzu daukazuna?

Zeure burua zigarroz, pilulaz eta orratzez besarkatzen hasi zinen, ematen zizutenaz zeure burua ziztatzen. Eta ikusi dut zeinen gozoa den pozoia heriotza maite duenarentzat. Gogorra egin zait horretaz jabetzea, haizeak lagundu dit, eta denborak. Puntu eta segi.

Eta galdu zintudanean biok galdu genuen, nik, zu zinelako gehien maite nuena, ta zuk ni nintzelako gehien maite zintuena. Baina beharbada, zu geratu zara gutxiagorekin, nik zu maite izan zintudan bezala maita dezakedalako beste norbait, baina zu ez zaitu inork maitatuko nik maite izan zintudan beste, benetan diotsut.

Agur esateko idazten dizut, zure zain egoteaz aspertu naitzelako. Berandu da Bea, berandu da. Urte asko galdu ditut, nigan pentsatu aurretik ahaztu ninduenarengan pentsatu izan dudalako. Eta ni handiagoa naiz nire sentimenduak baino. Badakit ez zarela bueltatuko, maitasunak itsutu eta guztiz galdu zaituela. Lisboa noa, nire bizitzako unerik ederrenak neure buruari beste behin gogoraraztera, eta nahi baldin baduzu, han aurkituko nauzu. Maitasun itsu horrek gutxienez ez zaitzala hil. Besarkada bero bat,

Esti.

JASOTAKOAK, GALDUTAKOAK ETA DOAZENAK

Goizeko zortzietan iritsi zara gaur ere, beti bezala. Gainerakoak itzartzen diren orduan hartzen duzu lo. Bizilagunek begi zuloak arakutzen dizkizutela iruditzen zaizu, eta masail hezurtsuek ikaratzen dituztela. Bai, urte gutxiren buruan miretsia izatetik beldurgarria izatera egin duzu salto. Ohartu zara zure itxurak jada ez dizula axola, eta duela hamabi urte orduak ematen zenituen ispiluaren aurrean. Zeure hankei begiratu diezu. Jada ez dizu inporta zapata apurtuen lokarriak askatuta eramatea ere, putzuz putzu eta taberna zulo batetik bestera ematen duzu eguna. Konturatu zara hiru urte pasa direla gurasoak azkenekoz ikusi zenituenetik.

Bai, zuk ere badakizu ez zarela lehengo bera, dotorea eta lagunkoia zinela. Narrasa eta independentea zarela. Eta jada ez duzula desio lehen maite zenuen ezer. Gorroto zenuenak liluraten zaitu orain. Kritikatzen zenuen horietako bat bihurtu zara. Non utzi duzu gaztetasuna, maitasuna? Zein pilulak desagerrarazi dizkizu poza eta negarra? Noiz erditu zenuen azken irribarrea? Non ahaztu duzu oroimena? Noiz egin zenion haginka azkenekoz gorrotoari? Ez dakizu. Hori da negargarriena, zeneukan dena heriotzaren alde egiteko desagerrarazi behar izatea.

Behebarruko atean gurutzatu duzu ondoko bizilaguna. *Egunon* batekin agurtu zaitu, eta ogia eta egunkaria erostera atera da, goizero legez. Eta zuk, beti bezala, *Ducados* zaharraren azken sua zapatapean itzali eta astiro igo dituzu eskailerak, atea irekitzeaz batera zapatak kendu eta ohean sartu zara zuzenean.

Kanpotik badirudi ez duzula pentsatzen, ez duzula sentitzen, hitz egiten. Ez da horrela ordea, gauzak gogoratzen pasatzen duzu eguna. Ohean, erdi lo. Eta eguerdi aldera komunera altxatzen zara. Amonak aurretik jo gabe atea irekiko ez duela dakizun arren, kisketaz ixten duzu, isilpekoak bestaldera gurutzatuko ez diren esperantzarekin. Bai, komunarekin sekretuak partekatzen dituzu, eta amonarenean bizi zara. Ezin izango duzu sekula ordaindu zugatik egin duena. Maite duzu, edo behar duzu behintzat. Bazkaltzera joaten zara gero, eta ostean, berriz

ohera. Ordutegi bat errespetatzen duzu oharkabean, funtzionario baten eguneroko bizitza bera baino eskematikoagoa.

Gutun azal bat ekarri dizu amonak “Tori maitea, zuretzako da”. Eskutitza. Eskuz idatzia. Aspaldian ez dizu inork idatzi. Nerabezaroan Eukenek Malagatik bidali zizun postal kutre hartatik, agian. Detaileak balio du, aizu. Irakurri aurretik bakeroen poltsikoan duzun karamelua atera duzu eta isiltasunaren erdian plastiko hotsak lehortu dizkizu belarriak. Zapore gorra dastatu duzu. Ohean etzanda hasi zara lehen hitzak irakurtzen.

Hamabi urte luze daramatzazu zulotik irten ezinda. Egia esan, ahaleginik ere ez duzu egin. Nola hasi zinen? Ez duzu ondo gogoratzen. Baina ez zen bat-bateko kontua izan. Batxilergoko klase kideekin afaldu zenuen gauean hasi zela uste duzu, eta denborarekin gauza berriak probatzen hasi zinela. Haize aldakorren usainak erakartzen zaitu, eta bere norabidean eraman zaitzan uzten duzu. Alkohola hemendik, alkohola handik. Alkohola. Alkohola. Zigarroa. Alkohola. Pilula bat. Alkohola.



Zigarroa. Eta apurka-apurka hartu zuen indarra; alkoholak eta zigarroak lehengo maila altuan jarraitzen zuten, baina pilulak areagotu ziren, eta hautsa arnastea probatu zenuen. Alkohola. Alkohola. Pilula. Alkohola. Hautsa. Alkohola. Eta hurrengo tentazioa haragi eginda ikusi zenuen. Xiringa. Orratza. Alkohola. Hautsa. Zigarroa. Orratza. Alkohola. Hautsa. Eta konturatu orduko, hanka ez ezik, burua ere sartu zenuen zuloan. Ez, zuloan ez, zurrunbilan.

Esti. Maiz gogoratzen zara berarekin. Benetan maite izan zaituela esan dizu, orain ez zaituela maite, baina itxarongo dizula. Badaezpada. Ez duzu ongi ulertu zer esan nahi izan duen. Berdin dio. Garratzak iruditu zaizkizu esan dizkizun zenbait hitz, baina arrazoi duzula uste duzu, guztiz. Lisboa. Esti. Txokolatea. Haiek bai haiek garai politak. Zuri ere sorbalda biluziak baino gauza sexiagorik, erakargarriagorik ez dela iruditzen zaizu. Gogoratzen zara Estiren sorbaldez, tirante handiegiez kexuka aritzen zen beti, baina ez zituen inoiz josten, bazekielako atsegin dituzula. Akordatzen zara, sorbaldez eta kokotean zuen orinaz ere bai, orbanaz. Garai haietan beteta sentitzen zinen, ase, eta ez zenuen ezer gehiago behar. Lisboa, Esti eta txokolatearekin, nahikoa.

Haserre dagoela dirudi eskutitzean, ulertzen duzu. Bere aferak baztertu zituen, itxaroteko. Esperoan, zain eta sufritzen egoteko. Dena ahaztu duzula uste du, maitatzea eta txukuna izatea da gogoratzen ez duzuna ordea. Triste da, baina halaxe da. Gogortuta utzi zaitu irakurri berri duzunak. Ileak tente. Estu zainak. Lisboako aste horiek, urrun baina garden. Lerro arteko berotasunean epeldu dituzu zure hotzak, garai batean Estirekin egiten zenuen bezala. Gutun hori da geratzen zaizun Esti.

Behin zuloan sartuta, dena galdu zenuen, hautsa, orratzen punta eta kea zeneraman barrura. Eta berdin jarraitzen duzu. Hamabi urtean ez zara aldatu. Dena galdu zenuen. Esti, gurasoak, lagunak. Ganora, lana, etxea. Dena. Eta pozik jarraitzen zenuen, gutxienez hautsa, orratzak eta kea geratzen baitzitzaizkizun. Kanean egin zenituen pare bat aste. Bai, gogoratzen zara gauetan estaltzen zintuzten kartoi haietaz. Busti egin ziren egun batez, eta amonaren etxeko ate parean agertu zinen.

- Maite zaitut, Bea. (Zu ere akordatzen zara.)

Blai, kartoi bustia bezain ahul. Eta nola ez, amonak esku zabalik hartu zintuen etxean, aitona hil zenetik bakarrik bizi baitzen, eta sasoi betean bazegoen ere konpainia ez zitzaion batere gaizki etorriko. Eta zure gurasoei ez zien fitsik esan. “Eta bere pentsio ziztrinarekin bizi zara zu, lotsagabe hori. Gutxienez egin harrikoa eta hautsak kendu, azken hori behintzat atsegin duzu eta.” Horrelakoak esaten dizkiozu zeure buruari. Gogotsu. Harro. Zeure eskuineko sorbaldan daramazun deabru ankerra bazina bezala batzuetan, aingeru plantan bestetan.

Beldurtu egin zara, begira, ikaraz dardarka zaude eta. Estik ez dizu gezurrik esan, datorkizuna begi bistan jarri dizu, muturren aurrean. Heriotza. Eta arretaz begiratzen baduzu zeuk ere ikusiko duzu, ziur. Atzetik datorkizu. Kontuz. Gutxien espero duzunean harrapatuko zaitu. Zure itzalaren parekoa baita. Uneoro duzu begira. Kontuz. Orain eskuinaldean. Zu baino azkarragoa da. Ez, beste aldean. Adi. Hor. Hortxe dago. Aurpegiera serioz duzu begira. Begirada tinkoa, zorrotza, zuzena. Zu zara bere begien helburu, bere besarkaden lepo. Berari begira zaude eta berak igarri du hori. Azkenean konturatu zara non sartu zinen. Eta une batez damututa zaude. Irribarre bat ateratzen ari zaio, mantso-mantso, maltzur-maltzur. Beldurtu egin zara. Ikaratu. Eta amonaren altzora joan zara malkoz, dardaraz. Ez dizu azalpenik eskatu, badaki zer gertatzen zaizun. Eta ume-umetan bezala, bere bularrean isildu du zure negarra.

Estreinakoz, damuak irentsi zaitu, heriotzaren misterioak ito eta ardurak iratzarri. Bekatuaren itzala gain gainean duzu. Gerizpean sentitzen zara uneoro, gerizpean, baina erreta. Aztoratuta zabilta gutuna irakurri duzunetik. Ez pentsatu, ez eman buelta gehiago, diotsazu zeure buruari etengabe, zorabiatu egingo zara, ez pentsatu gehiago, badakizu zer jazo zen, badakizu zer dagoen orain, ez pentsatu. Zoaz, eta edan ur



basokada bat. Ur txorrotaren hotsak pixagalea ekarri dizu. Ez da gertatzen zaizun lehen aldia.

Zapaten lokarriak askatuta. Eta narras. Konkorra. Notre Dameko konkorduna dirudizu. Hainbesterako ere ez, neska. Ez esan gezurrik zeure buruari, onartu, onartu itxura baduzula. Begi zulo moreak. Eta poltsak. Zure azala hotza da, horiek ez dira eskuak, hosto lehorrak dira. Eta hezurak ia agerian. Lehen ez zinen lodia eta hala ere hogeiki kilo kenduko zenituen. Hautsak, pilulak eta xiringak irentsi arren, hogeiki kilo gutxiago. Hori erakusten dizu ispiluak, eta ispiluak ez omen du gezurrik esaten. Ez pentsatu gehiago.

Norbaitekin hitz egitea desio duzu, baina konfesa ezina zaizu gertatu zaizun guztia. Gehiegi urrundu zara zeugandik, izan zinen Bea hartatik. Eta gehiegi gerturatu zara amildegiaren hegira. Eta eusten zaituen harria dardarka hasi dela sentitzen duzu, dena eman diozula ezer gabe utzi zaituenari. Zentzumenak galtzen ari zara, ilea galtzen den modu berean. Zentzumenak, sentimenduak eta azkenik izatea bera. Eta gero, desagertuta. Noski, galduta sentitzen zara, ez dakizu zenbat bidegurutzetatik igaro zaren. Ezta zenbat okerreko bide hartu dituzun ere.

Beste behin sartu zara gogoeten baitan. Joandakoak ez dira itzuliko, eta itzuli direnak ihesean doaz berriro. Hortaz, zer egin du Estik? Joan ala itzuli? Estik ez du merezi bere hitzekin zuk min hartzerik. Akatsa zeurea izan zen, bale, baina ez du zertan aurpegiratu modu horretan. Ez zara desesperaturik bizi diren horien zakuan sartuko, ez horixe.

Noiz galdu zenion beldurra drogari? Ohitu zinen egunean, apika. Ez drogen plazerak dastatu zenituenean. Historiaurrean ere, hasieran gauak beldurtzen gintuela otu zaizu, eta ohitu ginenean utzi geniola iluntasun monotonoaz ikaratzeari. Badirudi zeure miseriaren testigu izateak txunditzen zaituela, miraz zaudela, zirrarez. Pobreziari desafio egin nahian. Oraintxe ari zara konturatzen, hainbeste dugula mundu berri honetan ikusteko, hainbeste, zeinekin amestu ere egiten ez dugun. Zoriontasunaren errekaak, malkoen askak, ubideak.

Gizonezkoak gustatzen zaizkizula sinestarazi diozu zeure buruari. Tentela izan zara, benetan. Hura zen inoizko edertasunik ederrena, eta zeuk ere badakizu, ez disimulatu. Bere goxotasuna, bere gorputza. Lisboa, Esti, txokolatea, hura zen magiaren armonia. Eta hau, hau ere magia da, magia beltza. Haizeak eraman zaitu, Bea. Gutunean aipatzen den mapa hura bezala. Eta indarra eta adorea beharko dituzu aurka egiteko, gogo. Eta agian ostatura iritsiko zara.

Xedetzat izan arren ere, ez zara aldatzen, oraindik ere, goizeko zortzietan etxeraten baitzara, eta Pilarrekin egiten baituzu topo behebarruko atean. Lo egiten duzu, eta iluntzero berriz joaten zara taberna zuloetan alderrai ibiltzera. Putzu guztiak zapaldu eta hankak bustitzen zaizkizu. Eta hautsa. Eta alkohola. Xiringa. Orratza. Eta lanpara dardaratiek argizatzen dituzten komun zikinak.

Idea bat bururatu zaizu, Esti bilatu, hamabi urte atzera egin eta Lisboako kale aldapatsuetan paseatu, txokolatea gosaldu goizero. Eta alde egingo duzula erabaki duzu bat-batean. Alde. Ihes. Doazenak, gelditzen direnak baino prestatuago daude gehienetan. Eta zu prest zaude. Amona



ez. Droga ere ez. Hurbilen duzun tren geltokira inguratu eta bidaiarik luzeena egingo duen trena hartuko duzu. Eta beharbada, gero, trenaldaketaren bat egin beharko duzu. Ospa. Urrutira. Galdu zenuenaren bila zoazela esan diozu amonari, Estiren bila zoazela Lisboara. Gezurra. Ez duzu ezer aurkitzeko asmorik. Beti pentsatu izan duzu geroak ez duela iraganaren isla izan behar. Eta behingoagatik, badakizu zertan zabiltzan, baina bigarren gerizpea duzu jarraika eta ez dakizu nora zoazen. Heriotzarengandik baitzabiltza ihesean. *Berandu da Bea, berandu da.* Beranduegi honezkero. Hurbiltzen ari da trena. Patuari ez diozula ihes egingo pentsatzeaz batera egin duzu jauzi trenbidera. Presente daudenen garrasiek hautsi dute geltokiko isiltasuna, eta han, odol arrasto bat besterik ez da geratu, bizitza hautsi baten azken arrastoa.

Ipuinale



*Eñaut Uruburu
Martinez*

Irabazlea 18 urtetik gorako en sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Naél eta idazlea


Paris. Rue Pierre Bullet, 9. Hamahirugarren solairua, E. Goizeko 11:42 dira ordenagailu eramangarrian, hormako ordularian 11:47. Tarte horretan nonbait bizi da Naël, ez dute zehaztasunek askorik kateatzen. Lanari utzi zionetik, batez ere, gutxi gorabeherakoekin konformatzen ikasi du. Eta orain logelan edo egongelan dago, bietako batean, eta bietan batera, izan ere, siestarako erabiltzen duen sofa eta lotarako ohea altzari berbera dira, gurasoen etxetik eramana. Ume zela *Romester* markako zapatila kaxa eskas hari amak zer nolako etekina atera zion ikusitakoan konturatu zen gauzen funtzio erlatiboaz eta espazioaren ekonomiaz. Hortik dator sare sozialetako perfilean, izenaren ondotik, “minimalista naiz” idazteko hautua, berak bere neurrira egindako umorez, “je, je...” eta estiloko txiste-azalpenik gehitu beharrik gabe. Hogeita zortzi urte ditu orain. Telebista gisa ere erabiltzen duen *HPa* piztuta dauka pareko mahaitxoaren gainean. Inguruan atzoko afariko laranja-azalak pilo txiki bat eginda, zenbait orri zirriborroz beteak, hiru liburu eta boligrafo tapa bat. (Ez hautsontzirik ezta zigarrokinik ere eszenan, nire pertsonaia ez da erretzailea). Eta azpian, seguruenik, galdutzat eman duen boligrafoa.

Dena delako altzari balio anitzaren gainean trabes etzana dago bera, beste altzari bat dirudi. Esan gabe doa etxean bakarrik bizi dela eta, bere egunean tentatuta egon zen arren, ez duela txakurrik erosi. Azken Epaiketan erruduntasunak irabaziko ziokeen, kasu egingo dion norbait ez izateak gutxienez bere esanetara zerbait edukitzera bultzatzen baitu. Baina txarrena ez da bulkada gizatiar hori, txarrena da izan baduela dena delako barne-indar horren berri eta ezin duela bere burua engainatu. *Fox Terrier*

batekin paseatzera ateratzen den 9. pisuko morroi gazte antipatikoak, igogailuan halabeharrez suertatzen diren segundo eternaletan, erakusten dio txakur bat zenbateraino izan daitekeen bortxatua. “Agintari guztiei kostatzen zaie menpekoekiko menpekotasuna onartzea”, pentsatzen du. Horregatik egin zion uko apetari. Eta erabakia hartu zuenez geroztik, bakarrik gosaltzera ohitu da.

Oraindik mantak desestali gabe eta alboz botata dago mutila. (Edo gizona. Zeuek erabaki zein zakutan sartu. Narratzaile legez, ez zait erraza egiten heldutasuna juzkatzeko irizpideak aurkitzea). *Word* dokumentu bat irekia du pantailan, zuri momentuz. Eleberri bat idatzi nahiko luke, horixe izan zen lana uzteko arrazoi nagusia behintzat. Bi urte pasa zituen Raspail etorbideko jatetxe *chic* batean, *La Bonheuren*, Zoriontasunetik urrun samar zebilen ugazabaren haserrealdiei konplizitatezko irribarre batekin erantzuten. Bi urte luze nagusiari aurpegiratu guran 66 eratzuneko enbor ihartua zela eta zergatik ez zuen erretiroaren aukeran pentsatzen, dagoeneko ez zuela adinik duintasuna umekeriez lohitzeko. Burukominak burukomin, kontratutxo bat zeukan bederen, hilabete hasieratan pisuko alokairua eta gastuak ordaindu beharra, eta berarekin batera Literatura ikasketak amaitutako kide asko eta asko kaparra bihurtu ziren etxekoentzat. Zoriontsu agian ez, baina konformatzeko adina motibo bazuela pentsatu gura zuen orduan. Errealitatearen konstatazio horrek lagundu izan ez balio ez zukeen hogeita lau hiletan zehar terraza bera egunero atera eta sartuko, ezta mahaiak musuzapi gorri eta kandelatxoekin apain-apain jarrita klase altuko bezero mutur finei itxaron eta “bonjour, madame et monsieur, bienvenue chez-vous, on a la bonheur à la carte!”, esan ostean berokiak eta kapelak esekitokian utziko ere. Ez zukeen onartuko zerbitzatzeaz gain edalontziak garbitu, sukaldariei janaria desizozten lagundu, aldi berean telefono deiei erantzun eta, gainera, azken bezeroak halako batean etxera bero-bero eginda abiatu arte zain geratzea. “Konformatzen ikasi beharra dago” gogoetatuz biguntzen zuen objektu izatearen mina. Eta eguna gorbataz itota amaitu ondorenean, gorputza beroki handi batez estali eta kale hotzetan barrena 25 metro karratuko pospolo-kaxara bidean jartzen zen, pentsakor. Metroan inurri mordo bat atzera-aurrera zebilen gauero, mekanikoa

zirudien mugimendu erritualetan dantzan, eta bera molekula bat gehiago besterik ez masa koipetsu horren bazter batean. Ateak ireki, aulki libre bat bilatu, ateak itxi. Tuneletan sartutakoan inguruko ei erreparatzen zien, “nor zara?” galdetu nahirik bezala; eta atzetik, “nondik gatoz?”, “nora goaz?”, trumilka zetozkion. Baina aparatu informatiko batek “St. Placide” edo “Châtelet” esaten zuen bozgorailutik birritan *politesse française*aren tonu eztiagi horrekin eta metroko ateak irekitzen ziren geralekuan. Bazihoazen norabait banaka batzuk, eta airea arnas zezakeen une labur batez, baina berriz ere bi hankadun izate arrotzak sartzen ziren uholdeka, lekurik onena hartu asmoz, ohartzeke berandu apuntatu zirela aulkiaren jolasera, eta zutik joatea zegokiela. Eta gero, atzera ere, tunela eta begirada mesfidatiak. Azal ilunak, begi estuak, esku zuriak, zapata garbiak, aurikular dun belarriak. Berbak ere hotz. Zurrunga baten oihartzuna beste bagoiren batetik eta begiradak berriz ere. “Château d’Eau”. Ateak ireki eta orduan ateratzen zen bera. Kalerakoan oin eta logura kolektiboaren burrunba. Eskailera batzuk igota, txoko batean, gitarra-jole bat Georges Moustakirenak abesten eta kapelatxoan diruzorroetako hondar guztiak. Irri xume batekin ordaintzen zion Naëlek gauero-gauero hantxe egon izana mikrofono bat, amplifikadorea eta gitarra desafinatua lagun. Hura zen metro guztiko pertsona ezagun bakarra eta handik etxera bidean ez zen horren inurri sentitzen. Eskuak berokiko poltsikoetan sartu, kale erdi-hutsetan ibili, zenbait semaforo gorrian zeharkatu eta bizkor iristen zen portalera. Beti zegoen katuren bat epeletara sartzeko esperoan. Bebarruan gutunontzira jotzen zuen automatikoki *La Poste* delako “Mr. Dupont Naël” indibiduoaz akordatu ote zen edo ez frogatzeko. Seinale ontzat zuen hutsik aurkitzea, burukominak aurreztearen sinonimo zen duda barik. Gutunontzien izkinan bertan, asteko pare bat egunean-edo izan ezik, mutil beltzaran koadrila bat nahiko modu klandestinoan batzen zen *rap* musika entzun eta marihuana erretzeko. Naturaltasunez agurtzen zituen berak “apatridak” deritzen horiek. Ez zuten lanik egiten, ez zuten molestatzen; besterik gabe, existitzen ziren. Inoiz hiru-lau hitz gurutzatu ahal izan zituen haietakoren batekin eta, kanutoari pare bat zupada emateko aukera izateaz gain, beren aberriaz zertxobait jakin zuen. “Mali, Bangladesh, Ginea, Mauritania...”, gomutatzen zituen igogailuan gora zihoala.




Eraikinaren goreneko pasillora heldu, etxeko atea ireki eta ohean ziplo erortzen zen. Disekatuta ematen zituen bost bat minutu inguru. Ostean ordenagailua iziotzen zuen albistegiez enteratu eta munduan bizi zela konfirmatzeko. Gerrek beren lekuan edo auzoan jarraitzen zuten beti, politikariak lan izugarria egiten ari omen ziren Europa aurrera ateratzeko eta langabezia % 40 inguruan zebilen. “Ondo, ez da ezer aldatu. Bizi naiz”. Eta, batzuetan oinetako eta guzti, loak hartzen zuen.

Nekeak gainditzen zuen gaueko bidaia horietako batean, gitarrajoleari irriñoarekin batera lehen txaponak ematera animatu zenean, erabaki zuen lana utzi eta denboratxo batez bi urtetan lortutako aurrezkiekin eustea gastuei. Aurrerantzean, posible balitz, idatzi egingo zuen, eleberri bat. Umetatik zakarrontzira jaurtitako poesia eta ipuin itxurako ipuinek ez bezala, letra berriek leku duinago bat merezi zuela iritzi zion. Eta apustua egin zuen egin. Alabaina, asteak iragan dira ordudanik eta kaxako pospoloak banaka-banaka erretzen doaz. Ordenagailuko orrialdeak garbi jarraitzen du, eta bera sofan datza, erdi-

kiribilduta eta gogoetatsu. “Noiz hasiko du euria laino zarratu honek? Nondik eman hasiera? Zergatik? Ze erromantikok esan zidan zerbitzari lana utzita idazteari ekiteko? Ez al dut, bada, existentzia era apalago batean justifikatzerik?”. Erantzunen iritsi ezinaz kargututa hasperen egin du, hasperen. Gogaituta dago bere desiraren ulergaiztasunaz, kolpe eta josi beharrean, josi eta kolpe ari da beti. “Idazleena, funtsean, hitz politen jabe eginda gezurrak ontzen dituzten artista fantasiosoz beteriko gremio bat baino ez da. Sartrek ere *Goragalean* irakurlea eleberrien hasiera engainagarriaz ohartarazten zuen, hasieran amaiera bera dagoela inplikaturia eta tarte horretan gertatzen den guztia zehatz-mehatz neurturiko pausuz egituratua dela. Ideien harilkatze jarrai bat da idazlearena, koherentziaren parametroetan koka daitekeena argitaletxeek irakurria izaterik nahi badu. Baina bizitza... bizitza, ezer izatekotan, da. Ez dator inondik eta ez doa inora. Ezin da erreproduzitu; eta eginez gero, erreprodukzioa baizik ez zaigu gelditzen. Putzuan erortzera kondenatuta dagoen ahalegina da. Inork ez daki nongoa den, noiz hasi zen “da” hori edo inoiz amaituko den hasiera gabea. Beraz, zertara dator idazlea? Zer esan dezaket?”. Gaur artean goizero zalantza berberekin jaiki da. Eta, jakina, orrialdea birjin. Noizbehinka pintzelada txiki batzuk marraztu ditu teklatuarekin, arrazoiari muzin egitea lortu duenean bereziki, baina itaunak agertzean, ezinbestez, zurrunbiloan jausten da. Eta berriz ere zalantza. “Testu hau nire proiektzioa baizik ez al da?”. Eta zalantzaren zalantza gero. “Baina proiektziotik salba ote gintezke? Ez al gaude gure ezinen islak agertzera lotuta?”. Eta zalantzaren zalantzaren zalantza. “Halere, ez al dut beste lekuri munduan? Ze beharizan dut nire barne-mundua agerian jartzeko? Ze exhibizionismo mota da hau: “prostituzio intelektuala”? Eta horrela balitz, zeinek zuzen lezake idazlea bere gordintasun netoan denaren eta irakurleek gainjarritako erreputazioaren arteko distortsioa? Zer dago arrakala horien artean?”.

Oharkabean astei hilabeteak pilatu zaizkie eta ametsak linboan segitzen du gaurdaino. Gutunontzia ohartarazpen periodikoz bete zaio eta kontu korrontea umildu. Leihotik begira, “ofizios erratu ote naiz?”, pentsatzen du orain Naëlek. Zerua laino dago, “negu grisa da zurea, Paris”. Kristalezko dorre handiak ikus ditzake horizontearen azpian. Ke beltza hiri kanpoaldeetako tximinia handietatik. Auto gutxi dabil kale luzeetan eta



familia bat baino gehiago espaloietatik plaza ondoko parkerantz doala suposatzen du, ahateei aste osoko ogi birrinak jaurtitzera. Berak ez du plan hoberik. Domeka da. Aspaldian kendu bako pijama erantzi eta zibilizaziora aterako dela kontuan hartu du arropa aukeraketa egitean. Eta irten da mundura. Badoa, badabil. Pausuak harlauzatan: tipi-tapa-tipi-tapa, arnas-hotsa: hartu-bota-hartu-bota, tipi-tapa, hartu-bota. Supermerkatuak irekita daude, hiri-autobusak zirkuituan dabilta eta egunkari-saltzailea goizeroko leku berberean dago. “Beharrean dabilenak soilik bizi dezake egun berezi honen iruzurra. Niri imajinazioa falta zait astelehenetik eskapatzeko”. Eta errepidea gurutzatu du. Parc de la Conquête. Pausuak harrixotan: krik-krak-krik-krak, arnas-hotsa: hartu-bota-hartu-bota, krik-krak-krik-krak. Zuhaitzek ufadaka egiten dute ikara. Ipar-haizea dabil, orain gelditu, orain astindu. Eguzkiak ez du hodeitik itzartzeko ausardiarik. Bikote gazte bat karrotxoari bultzaka dator eta han, *Seinek* parkea erdibitzen duen meridioan, urre kolorezko karrusel bat dabil bueltaka. Haurren txilio eta barreak entzuten dira. Euretako bat bera baino handiagoa den azukredun kotoi arrosa borobil batekin pasa da arineketan. Elkarren ondoan ilaran jarririko ugerdun postuetako batetik eskopeta-tiroen soinua dator eta “zorionak, asmatu duzu! Zer nahi zenuke: hartza edo lehoia?”. Eta erreka barean paitak ogi-ehizan. Naël, eskuak praketako patriketan gordeta, bere karrusel partikularrean: “zer da idatzi nahi eta ezin hau?”. Ez daki berbatara zelan ekarri kontraesanaren samina, baina *La Bonheur* utzi izanaren damua sentitzen hasi da zainetako hormetan gora eta behera. Erreka ondotik iragaten den bide-gorritik gizon nagusi bat bizikletan dator, patxadatsu, praka laburretan, kaskoa atzerantz jausia eta sandaliak galtzerdien gainetik jantzita. “Orain zer egin? Irakurtzeko akaso ez, baina idazteko zerbait falta zaizu, edo zerbait duzu sobran; bistakoa da. Jatetxean zure posturako langile berri bat kontratatuko zuten dagoeneko zuk baino *misse en place* hobeia egiten duena, oso zail ere ez diozu jarri, egia esan. Une honetan bertan...”. Esku-erlojura begiratu du. “...12:52, aurreneko bezeroei karta azaltzen ariko da. Argituko die, noski, dena etxean egina dela eta, hortaz, lasai egoteko, hautatzen dutena hautatzen dutela ere ez zaiela haienera joan izana damutuko. Patroiak, lehendabiziko lanegunean, horixe esateko esan zidan niri behinik behin. Ah, eta asko sentitzen nuela,

baina, kartan agertu arren, ez zegoela kabiarririk; eta, nire aldartearen arabera, kasualitatea atzo bertan amaitu zela”. Irri egitear zen, baina pentsamendua isildu egin zaio ustekabeak, eta zer edo zerk biluzik harrapatu du; oinaztarria lez jausi da. 12: 53. Ibai bazterretik doa Naël, jakin barik dabilzkio urrats motelak. (“Soseguz” esango luke narratzaile esperientzia gabeak, baina nik badakit orain bere oinkada bakoitza labarraren ertzean emana dela eta gurago lukeela erreka salto egin eta kolpetik ahate edo antzara bihurtu). Krik-krak-krik-krak. Begirada hutsean galduta, ikusi barik begiratzen du. Inguruan fantasma itxurako itzalak gurutzatzen ditu eta haurren oihu urrunak datozkio tarteka. Arnasa estutzen hasi zaio eta ez daki ondo zer ari den gertatzen. “Zer? Nora? Non?”. Mundua itxi egin da, edo zabalegi gelditu bere txikitasunerako. Auspoa bizkor: hartu-bota-hartu-bota-hartu-bota. Bizitza besterik ez du ikusten orain, bizitza bere aurrean desegiten eta formarik gabe. Eta hartu-bota-hartu-bota-hartu-bota. Parkeko ibilera bizkarrera itsatsita, belarra perpendikularki zedarritzen duen espalora



iritsi da eta bat-batean marra zuri paralelodun errepide bat. (Gelditzeko agindu diot, gelditzeko, baina kontrolpetik atera zait). Silueta gorri-lauso bat zutoinean eta klaxon soinu gorgarria gainerantz. (Erditik kentzeko diotsot artega, mugitu!). Berandu dabil; berandura doa. Ez du ulermena ulertzen; ez dago inon. Eta irabazle sentitzen da. Pum.

(Irakurle estimatuok, ikusi duzue, ipuina protagonista barik gelditu da. Ez da lehendabiziko aldia nire idazlea lerrorik osatu gabe erretiratzen dena, beti gertatzen zait antzeko dramaren bat: amaiera epikoago batera eramanez nahi izaten dut, argiz mozkortzeraino, eta, orduan, egoerak txarrera egiten jarraitzea ezinezkoa dirudienean, ulertzen ez dudana arrazoiren bategatik, matxinatu egiten zait. Gero etxeko atarian agertzen da, irribarretsu, nirekin berba egin gura duela esanaz. ‘Din-don’. Hara, tinbrea! Ez du errukirik. Erdizka utzi behar zaituztet ostera ere. Sentitzen dut, benetan. Ene azken ahaleginean irakurlea gorputzaldi hobearrekin uztea nuen xede, baina, definitiboki, ez dut idazteko balio. Amaiera). “Kafe bat, s’il te plaît?”.

Olerkiak



Jon Barruetabeña
Bilbao

Irabazlea 11-12 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola



Pailazo mutua

Ai Txiribiton ton ton
bozinatxoarekin beti mok mok.
Hor datoz zirri eta irri
Txirri eta Mirri
bat bihurri eta bestea aspergarri.
Ai Txiribiton
haurtxoek beti nahi dute zurekin egon

Ai Txiribiton ton ton
trikitrakatrikitron.
Gure Txiribiton da mutua
baina dauzka beteta
bihotza eta burua
Ai Txiribiton
haurtxoek beti nahi dute zurekin egon

Ai Txiribiton ton ton
lanari hor konpon
dantza egitea du lan bakarra
jan da jan txorizoa
gero izango du mina tripakoa
Ai Txiribiton
haurtxoek beti nahi dute zurekin egon

Olerkiak



Aroa Merino Turrion

Irabazlea 15-16 urteko sailean
San Antonio – Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Gogorra da

Gogorra da bai gertatutakoaz hitz egitea,
 sei urte soilik izanda hori gertatzea
 ez da inoren planetan sartzen egia esan,
 baina gertatutakoa ezin genezake aldatu
 nahiz eta nahi izan, horrela da.
 Hain txikia izanda ez zara konturatzen
 baina gauzak zure inguruan ari dira aldatzen,
 eta zure gurasoak, nahiz eta zuk nahi ez,
 apurka-apurka ari dira euren artean aldentzen.
 Ez da zure errua baina hasi dira banatzen.
 Gau batez zure gelara joan eta aurpegi txarrez
 jada ez dutela lehen bezala elkar maite esaten dizute.
 Zer? Ez duzu horrelakorik espero, nola imajina?
 Ume-mokoa zara, zelan horretan pentsa?
 Harrituta zaude, eta malkoak erortzear daude,
 bat, bi, hiru... aurpegian zehar izurtzen dituzu,
 min handia duzu, bihotz inguruan eta baita saman ere.
 Gurasoei begira zaude, malkoak ere izurtzen dituzte,
 egia da, sinetsi behar duzu, bizitza horrelakoa da,
 baina ez duzu ilusioa galdu, berriro elkartuko dira.
 Bai zera! Urteak pasata, ez duzu jada hori uste,
 begiak zabalik, ikusten duzu, ezin direla aurpegira begiratu,
 ezin dutela ia hitz egin garrasika hasi gabe,
 edota gauzak elkarri leporatu gabe.
 Handi egin zaren arren, min duzu.
 Ez zaude batere gustura horrelakoekin,
 ondo ikusi nahi dituzu gutxienez, baina ezin,
 umeak baino txarragoak dira elkar ikusten dutenean.
 Badira jada bederatzi urte banatu zirenetik,
 hala ere ondo gogoratzen dut eta ez nago oraindik
 batere ohituta, eta ez naiz egongo denbora askoan.

Olerkiak



Aitor Bizkarra Ruiz

*Irabazlea 17-18 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua*

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Egarbera

Uda amaierako ilunabar,
 udazken egarri,
 bidenabar,
 haizezko begi zureak.
 Dasta-gai zen erreka hotsa:
 erreka hotsa,
 zure ahotsa,
 ez dakit...
 ez dakit gure harriaren gainean gentzan ere,
 gure arbasoen ahanzturaren arbola zaharrenen maindirepean,
 baina,
 bagenekien jakin:
 geurea zela harria!
 Eta hargatik
 nahi zuenarena,
 nahi zuenarena edo
 inorena ez, katuak bezala.
 Eta hego haizeak ferekatzen gintularik,
 edo ipar haizearen hasperen umelak,
 edo zure begiek
 ni,
 edo zure begiek nireetan zuten islak
 zu...
 beno,
 hego haizeak gintularik laztantzen
 basoaren isiltasun orroa arkatzezko zirriborro bihurtzearekin batera,
 gure “dutxatik pasatu gabeko elkarrizketa” horietako bat
 kiratsa zeriona,
 izerdi-kirats gozoa,
 elkar-pizketa
 eta suge gorrien dantza eskizofrenikoa
 “sueltoan”,



“agarrauan”...

Zuk, heriotza dela askatasuna
nik, egiaren jakintzan aurkitzen dela askatasuna
eta zuk, askatasunak behar duela egia izan
eta nik, poesiak idatzi zintuela zu.

Hautua egin zenuen gero,
txosnetako kondoiak erabiltzean bezala:

ziur,

baina dudati

“usteak erdi ustel” asimilatuegirik,

eta loturak erantzi zenituen

biluztu arte

banaka-banaka,

edo bakana?

Lotura,

bizitza,

eta ni,

gazteegia aske izateko.

Olerkiak



Aitor Albistur Pulido
Irabazlea 18 urtetik gorakoan sailean

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea



Erdi (beltz) Aroa

ZALDUN BELTZA

talaian zegoen soldadu soil zelatariak eman zuen abisua
 bere oihuak harresia dardararazi zuen
 dorreak makurtu ziren beldurra ekidin ezinik
 harresian zeuden arkularien hortz-soinuaren oihartzunak
 itsu-leihoan zegoen gudarostearen belarriak bereganatu zituen
 gazteluko paretek armarriak bihurtu zituzten errealitatea ezkutatu nahian
 bazetorren zaldun beltza
 bazetorren bere zaldi beltz gihartsuaren bizkarrean
 bortizki astintzen zuen ezpata boteretsuaren distira
 begizatzen zen gauaren iluntasunean
 bere armadura suntsiezinaren itzalak hartu zituen gortekoen bihotz
 suntsikorrak
 sailhestezinaren ferra hotsak hurbiltzen ziren ezproi kolpe bakoitzeko
 iritsi zen eguna
 ez zegoen ezer egiterik
 iritsi zen zaldun beltza
 lubakiaren ertzera heldu zenean
 bere zaldi beltzak azken irrintzia egin zuen
 isiltasun ikarati hura bortxatuz
 ez zegoen ezer egiterik
 iritsi zen zaldun beltza
 gupidarik gabeko mundu hartan
 zubi altxagarriaren karranka nahigabetuak ere
 ezin izan zuen halabeharra aienatu

GAZTELU BELTZA

gaztelu beltzak sekretu guztiak irensten ditu
ziega ezkutuenean dauzkan gatibuak bailiran
sekretua da orain hogei urteko erregea hil zuen
pozoia ren konposizio kimikoa
sekretua da bere oinordekoak janarian edo edarian nahastu ote zuen pozoia
sekretua da nekazari gazte hura bietako nork utzi zuen haurdun
sekretua da nekazari gazte haren semea errege ona izango ote den
gaztelu beltz honetan
sekretuen erresuman
erailketen odol gorriak zehazten du tronuaren trantsizioa
odol urdinaren existentzia sekretupean baitago
nekazariak badakite ordea
bietako nork utzi zuen haurdun
eta nekazari gazte haren semeak pozoitu zuela bere aita
bere aitak bere aitona bezala
eta ez dela errege ona
—ez nekazariarentzat bederen—
euren alaben ezkontza egunean
lehen gaueko eskubidea
jus primae noctis
baliatzea atsegin baitu
sekretuak irensten dituen gaztelu beltzean





GEZI BELTZA

gezi beltz batek zeharkatu zuen printzesaren bihotza
 bere irribarre zabala heriotzan iltzatu zen heinean
 maite ez zuen printze harekin ezkontzera zihoan egunean
 soineko zuri odoleztatuak borborka jarri zuen Erregeren odola
 printzearen aurpegiko odol-zipriztinek
 bere herrirako bidea hartu zuten bitartean
 gorrea asaldaturik zegoen
 bakan batzuk baitzekiten
 printzesaren maitale izandakoaren hatzek tenkatu zutela
 hil-kanpai hotsa barreiatu zuen arkuaren soka
 benetako maitasunaren izenean
 Erregek benetako maitasuna atxilotarazi zuen
 mendekuaren izenean
 eta arku hiltzailearen soka tenkatu zuen maitalea
 erreinuko arkulari onenen gezipean erail
 gezi beltzez zulatu zuten maitalearen izpirituak
 bizirik darrai hil zuten lorategian
 benetako maitasunaren izenean
 eta horregatik ihartzen dira urteurrenero gazteluko lore guztiak

Bertsoka



Jon Koka Juaristi

Irabazlea 11-12 urtekoen sailean
San Antonio - Santa Rita ikastetxea

julene azpeitia lehiaketa • 2013 urtea




Kirolak

Rugbyan jolasteko
behar da baloia
txarto botatzen du
ta dirudi meloia
Jokalari horrek bai
dirudi lehoia
gure taldearentzat
delako heroia

Gure futbola beti
izan da maitea
ondo pasatzekotan
bai zaindu legea
futbolean jolasteko
behar da taldea
aurrelari defentsa
ta entrenatzailea

Kirola egitea
da oso osasuntsu
irabazten baduzu
zaude zoriontsu
galtzen baduzu berriz
behar konformatu
egindakoa egin
gu beti gogotsu

Bertsak



*Martin Arrasate
Iriarte*

*Irabazlea 15-16 urtekoen sailean
Kurutziaga Ikastola*

julene azpeitia lehiaketa • 20013 urtea



Zahar

Ordulariak biraka darrai
baina inora joan gabe
geratzen diren bizi orduak
denak dira atsekabe
herio ate joka
hemendik nahi nau bota
“zure gorputzetik alde!”
beranduegi ohartu bainaiz
ez naizela nire jabe

Denbora jan gura nuelako
dena guztiz aldatu da
txikitan askea izan nintzen
argi izpien modura
ta egin nion uko
ez dut sekula ahaztuko
heldutasunaren muga
egunak hilabete bihurtu
zitzaizkidan une hura

Pertsonok berez ditugun arren
mila gaitasun bertute
iruzurrez bilakatu naute
robot bat urterik urte
“bete beharrak klaru,
izan zaitez esklabu,
etorkizun baten truke”
aukera bat agertu ezkerro
atzera egingo nuke

Nire burua beteta dago
bete beharrez eta nahiz
baina irrikak ez ditut bete
bete beharrak, aldiz, maiz
nahi izan dut esnatu
amets gaitza bukatu
baina ezin lortu garaiz
paradisua topatu nahian
infernuan gelditu naiz

Zahar etxeko gela honetan
dena utziz bertan bera
nire gorputza eta arima
orain ez doaz batera
egin nahi nuke salto
gela hontatik kanpo
argi izpien antzera
oinak lurrean eduki baino
hegan joatea hobe da

Bertsak



Aitor Bizkarra Ruiz

Irabazlea 17-18 urtekoen sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua

julene azpeitia lehiaketa • 20013 urtea



Kilkerren kutxa gotorra

Gaua maite du, iluntasuna
ta bakardade ezta,
ilargiari xuxurlatzeko
katu beltzen abestia,
baina hain da garestia
izatea amestia.

Ikaratuta begiratzen du
egunaren argazkia,
gizakiaren etxea garbi,
inguruan sarraskia.
Nahiz ta begiak indarrez itxi
ta uzkurtu gorputz guztia
atera da eguzkia.

Egunak jada argitu du ta
hori kolore mordoia!
Amak kalera bidali nahi du,
ona ei dago giroa
baina ez da bere gogoa
lagun baten abaroa.
Etxe alboko parkean dago
zuhaitz batera igoa,
amak leihotik begiratuta
hitzez bete du ahoa
“Gure semea ez da normala,
bide eskasetik doa”
baina nor da arraroa?

Bere zuhaitza josita dago
hostoz, kimuz zein adarrez,
amaigabeko zeru sakona
tindatzen dutenak urrez.
Orain ahaztu da beldurrez,
zenbat pago eta “hurretx”.
Patriketatik kutxa gotorra
atera du irribarrez,
baina barrea ez da barrea
ernetzen bada negarrez.
Kutxa beteta dago iraganaz,
gorrotoz eta haserrez,
gosez hildako kilkerrez.

Ez da sekula maitatua izan,
ez du usaindu kresala,
aitak jo ere egiten zuen
gizontzen ikas zezala.
Orain ez al da normala
ukatzea diosala?
Nola edo hala mendekatzeko
more duen betazala
kilkerrak hartu ditu eskutan
zorroztuaz atzazala:
burua erauzi, lurrera bota
kendu ondoren azala,
pipak balira bezala.



Aita eta ama butakan daude
 ipurdia ezin jaso,
 pentsatu ahala “ene zein zaila
 den izatea guraso,
 oraintxe zer Mariatxo,
 psikiatrei deitu akaso?”
 Azken finean guztiok gara
 zirku honetan pailazo,
 izurde eder izan gintezke
 edo bestela marrazo,
 “zorionari” adio esan
 ta “zoramenari” kaixo,
 gizartea dago gaixo.

Asteburua bukatzeaz da,
hori ez zaio atsegin
eskolara joan beharko baitu
eta huskeriak egin.
Oraingoan ere berdin,
errealitatea gordin,
baina bihar ez, bihar nahi duen
horri behar dio ekin,
irakasleen errietekin
jadanik ez du hartzen min,
“Gora Herio!” idatziko du
Eskolako hormetan, fin.
Kilkerren odolarekin.

Bertsak



Aitor Albistur Pulido

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean

julene azpeitia lehiaketa • 20013 urtea



Egiari zor

Doinua: Itsasoa laino dago

Sendi baten
estaldura
nahiz itxuraz
zen onura,
dei soil batek
nire duda
bidali du
infernura!
Egia ze
zerbitzu da
saminaren
zerbitzura?
Egia ze
zerbitzu da
ez banaiz lehen
nintzen hura?

Gezurrezko
errezela
bat aurrean
genuela
bizitzea
zen itzela,
jakin gabe
hala zela...
Zekiten, nik
ez bezela,
egia zein
den krudela...
Zekiten, nik
ez bezela,
haur lapur tu
bat naizela!

Mojak eta
medikuak,
jaioberri
bahituak
salduz luze
arituak,
zeuden diruz
hornituak!
Ene! Ama
erdituak,
engainuan
tradituak!
Ene! Ama
erdituak,
betirako
zaurituak!

Ez lotsa, ez
erreparo,
erosketa
bat gehiago
naizela, ez,
ez, ez, klaro,
onartzeko
prest ez nago!
Bihotzetik
haratago,
tristuraren
menpe nago...
Bihotzetik
haratago,
maitasuna
salgai dago!

Egun bizi
 dudan drama
 latz honetan,
 zeresana
 egiak du;
 bere zama,
 nire minak
 baitarama...
 Gorroto dut
 iragana!
 Berdin aita,
 berdin ama!
 Gorroto dut
 iragana!
 Fartsa bat zen
 geneukana!

Zenbat gara?
 Bi, lau, bost, sei,
 hogei edo
 hirurogei?
 Hau salatu
 nahi dutenei
 ozen egin
 nahi diet dei.
 Zor diegu
 kaltetuei:
 pena jasan
 duten denei.
 Zor diegu
 kaltetuei:
 benetako
 gurasoei!



Ze gezurra,
ze iraina!
A ze nazka,
ze destaina!
Tranpa zenez
hain bikaina,
sufritzea
da ordaina...
Haur lapurtu
bat naiz, baina
hartu behar
diot gaina...
Haur lapurtu
bat naiz, baina
pertsona bat,
alajaina!

Munduari
begirada
luzatzean
hotzikara
sentitzen dut,
nahierara
eman baitit
ostikada!
Ze gizarte
mota gara
gizakion
begitara?
Ze gizarte
mota gara
egia hil
baldin bada?